

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

Zuhaitz guztiak,
geolokalizatuta



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Hezkuntza	943 25 50 06
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Gaztelekua	943 15 71 61
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Haurren eta nerabeen kontrako sexu
indarkeriak salatzeke telefonoa:
688 758 299



Ale honetan zer?

Apaingarri huts bat baino gehiago	3
Zuhaitzen kudeaketa	4
Aniztasun handia duen herria	6
Lehen urratsak, Loiolako Inazio etorbidean	7

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu
Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria
943 15 71 85 (Alkatetza) telefonon.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren
Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda
agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak
edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian,
astelehenetik ostiralera, 07:30etik 14:30era izaten da zabalik;
ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara,
etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



Zuhaitzak, apaingarri huts baino gehiago

Zuhaitzak elementu garrantzitsua dira herriguneetan; ez herriak politago egiten dituztelako bakarrik, baizik eta mikroklimak sortzen laguntzen dutelako, airea garbitzen, filtratzen eta hezeten dutelako, zarata gutxitzen dutelako eta beste hainbat onura eragiten dituztelako ere bai.

Azpeitiko Udalak herrigunean dauden zuhaitzen inbentarioa egin du, Kimu Bat enpresaren bidez, eta bildutako datuak aplikazio batean jaso ditu. Bestek beste, Azpeitiak zuhaizti aldetik aberastasun handia duela ondorioztatu da inbentarioan. Guztira, 3.480 zuhaitz zenbatu dituzte herrigunean.

Azpeitiak zuhaizti aldetik aberastasun handia du. Guztira, 3.480 zuhaitz zenbatu dituzte herrigunean.

Inbentarioak zuhaitzen kudeaketa, osasuna, balioa eta abar hobetzen lagunduko dio udalari.



Zuhaitzen kudeaketa hobetzeko tresna

Zenbat zuhaitz daude Azpeitiko herrigunean? Zer adinetakoak? Zer forma eta tamaina dute? Horiek guztiak jakin nahirik, Azpeitiko herriguneko zuhaitzen inbentarioa egin du Azpeitiko Udalak, Kimu Bat enpresaren laguntzarekin. Jasotako datuak Arbomap izeneko aplikazioan jaso ditu, eta horri esker, geolokalizatuta daude herriguneko zuhaitz guztiak. Udalak aldiro-aldiro eguneratuko ditu datuak.

Joanes Amenabar Azpeitiko Udaleko Ingurumen batzordeburuak azaldu duenez, amaitu berri den inbentarioari eta Arbomap aplikazioak eskaintzen

Arbomap izeneko aplikazioan Azpeitiko herriguneko zuhaitzen inbentarioa egin du eta horri esker, geolokalizatuta daude herriguneko zuhaitz guztiak.

dituen erremintei esker, zuhaitzen kudeaketarako baliagarriak izango zaizkion hainbat datu kontsultatzeko aukera izango du udalak. "Besteak

beste, herriak duen landarediaren panorama aztertzeko, espezieen aniztasuna ikusteko, egoera txarrean dauden zuhaitzak zaintzeko eta zuhaitz itzaltsuenen lokalizazioaren berri izateko balioko digu lan honek”.

Esate baterako, zuhaitz espezie batek onddoak dituela eta zuhaitzak usteltzen ari direla ikusiz gero, halako zenbat zuhaitz dauden eta non dauden berehala jakingo du udalak, gero ekintza plan bat gauzatzeko. Beste adibide bat: herrian itzalgune gehiagoren premia dagoela ikusiz gero,

Herriak duen landarediaren panorama aztertzeko, espezieen aniztasuna ikusteko, egoera txarrean dauden zuhaitzak zaintzeko eta zuhaitz itzaltsuenen lokalizazioaren berri izateko balioko du lan honek.

aplikazioaren mapa baliatuz, irudi bisual bat atera eta itzal eremuak sortzeko eremurik egokienak zein diren ikusiko du.

HERRIGUNEKO ZUHAITZAK

Oraingoz, udal teknikariek dute aplikazioa erabiltzeko aukera, baina aurrera begira, herritarren esku ere jarri nahi da. Udalak kudeatzen dituen zuhaitzak bildu dira inbentarioan, hau da, ez dira kontuan hartu landa eremuko, mendietako eta jabetza pribatuko zuhaitzak. Banaka-banaka ikusi da zuhaitz bakoitza non dagoen, zer espezieetako den, zer neurritakoa eta zer adinetakoa. Horiek kontuan hartuta, hainbat eremu izendatu dira, zuhaitzi aldetik dituzten ezaugarriak kontuan hartuta.

Herriguneetako zuhaitzek duten garrantzia azpimarratu du Amenabarrek. “Arbolak ez dira apaingarri hutsa, gero eta funtzio gehiago betetzen dituzte herriguneetan, garrantzia eman behar diegu, eta uste dut inbentario hau aproposa dela horretarako”.





Aniztasun handia duen herria

Azpeitiko Udalak Kimu Bat enpresaren laguntzarekin osatu du herriguneko zuhaitzen inbentarioa. Azaroaren 21ean aurkeztu zituzten ateratako ondorio nagusiak Joanes Amenabar Ingurumen batzordeburuak eta Iker Goikoetxea, Mitxel Igarataundi eta Ane Iturzaeta Kimu Bateko kideek. Azpeitia “herri pribilegiatua” dela esan zuten Kimu Bateko kideek, zuhaitzen aniztasun handia dagoelako. Haien esanetan, oro har, egoera onean daude herriguneko zuhaitzak.

Gaur egun, Azpeitiko Udalak 13,5 hektarea inguruko berdegune bat kudeatzen du herrigunean, eta zuhaitzak dira azalera horretako elementu nagusia. Guztira 3.480 zuhaitz erregistratu dituzte herrigunean: horietatik 2.677 kudeatzen ditu udalak eta gainerakoak jabe pribatuenak dira edo Urola ibaian daude eta ez dira udalaren eskumenekoak. 148 espezie identifikatu dituzte; 31 hosto iraunkorrekoak dira eta gainerakoak hosto erorkorrekoak. Hirutik bat platanondoak dira. Palmondoak, aldiz, gutxi dira, lau espezie bakarrik identifikatu dira.

Azpeitia asko hazi da azken 30 urteetan, eta auzo berrietan daude zuhaitzak gehienak. Lehengo zuhaitzei dagokienez, Loiolako lorategian edo Loiolako Ignazio etorbidean daude gehienak. “Loiolakoek ehun bat urte dituztela uste dugu, eta bakarren bat lokalizatu dugun arren egoera txarrean, gehienak oso ondo daude”, diote Kimu Bateko kideek.

AUKERAKETAREN GARRANTZIA

Lehengo zuhaiztietatik berriagoetara aldaketa nabarmen bat ikusten dute mantenu aldetik. Duela 40 urte baino lehen landatutako zuhaitz gehienak kimatu beharrekoak dira; gazteagoak, ordea, ez. Espezieak ondo aukeratzearen garrantzia azpimarratu dute. “Azken 25 urteetan landatu direnak ez dira kimatzen, hori da helburua, zuhaitzek beren garapena izatea. Horretarako, ondo aukeratu behar dira: eraikin ondoetan zuhaitz altuak baina bolumen handia hartzen ez dutenak jarri biztanleekin oreka bilatzeko, boladun forma izan eta hazten ez direnak aukeratu... Joera hori da”.

NABARMENTZEKO DATUAK

Guztira **3.480 zuhaitz** erregistratu dira herrigunean. Horietatik **2.677 zuhaitzen kudeaketa udalaren esku** dago, eta gainerakoak Urola ibaian daude edo partikularrenak dira.

148 zuhaitz espezie identifikatu dira.

31 espezie hosto iraunkorrekoak dira, eta gainerakoak hosto erorkorrekoak.

Palmondo gutxi daude herrian: **lau espezie** identifikatu dira.

Zuhaitzen **%33 platanondoak eta beltzaleak** dira.



Lehen urratsak, Loiolako Ignazio etorbidean

Azpeitiko Udalak egin berri duen zuhaitzen inbentarioaren jatorria duela urte batzuetatik dator. Haizeteren bat zegoenean, erortzen hasi ziren Loiolako Ignazio etorbideko ezki arbolak. Aspaldiko zuhaitzak dira, oso handiak egiten dira, kopa itxia dute, eta ia denak kimatuta daude. Hala, kanpotik itxura ona izan arren, horietako batzuk usteltzen joan dira barrutik, eta zenbait ale arriskutsu bihurtu dira.

Bere garaian azterketa bat egin zen, eta ikusi zen zer zuhaitzek zuten arriskurik handiena. Ondoren, plangintza bat ezarri zen, pixkanaka-pixkanaka joateko aldatzen, okerren zeudenetatik hasita. Bat-bateko neurri bortitzik hartu gabe, urtero egiten zaie errepaso bat zuhaitzei. Hiruzpalau ale kentzen dira, eta, haien ordezt, berriak landatzen dira.

Plangintza horretan jasotakoari jarraituz, ezki arbolaren erdiak inguru ordezkaturik daude

dagoeneko, baina oraindik 10-15 urte beharko dira hiribideko ezki arbola guztiak ordezkatzeko. Kendutako zuhaitzen ordezt ere ezki arbolak sartzen dira, baina beste barietate batekoak: gutxiago hazten direnak eta arrisku gutxiago dutenak.

Loiolako Ignazio etorbideko zuhaitzekin egin zen lanketa, herriguneko zuhaitz guztiekin egin da orain. Izan ere, udalaren ustez, garrantzitsua da zuhaitzen kudeaketarako epe luzeko plangintza bat izatea.

**Loiolako Ignazio
etorbideko ezki arbolaren
erdiak inguru ordezkaturik
daude dagoeneko**



Energia Bulegoa

943 11 98 06
energia@azpeitia.eus

Ordutegia:

Astelehen, astearte, asteazken
eta ostiraletan, 10:00etatik
14:30era. Ostegunetan,
17:00etatik 19:30era.

www.azpeitia.eus